

OIARTZUN / Astelehenetik aurrera, ordutegi berezia herriko bibliotekan

Unibertsitateko azterketa garaia hasteko dago eta horrekin batera badatoz hainbat oiartzuarrentzat ikasketa egun gogorrak. Hori dela eta, Manuel Lekuona bibliotekak zerbitzu berezia eskainiko die ikasle horiei astelehenetik aurrera. Bibliotekako beheko solairuko aretoa ikasleentzako irekita egongo da astelehenetik larunbatera, ordutegi bereziarekin: goizeko 09:00etatik gaueko 22:00etara.

Erabiltzaileak aretora sartzeko atzeko atea irekita egongo da ordutegi horretan (zementerio zaharraren aldetik) abenduaren 12tik, astelehena, urtarrilaren 30 arte -unibertsitateko azterketa egutegiaren bukaera arte-. Garai horretan giroa behintzat ez da faltako liburutegi inguruan.

Konzentrazio bila

Ikasle oiartzuarrek aspalditik egiten duten eskaera bati erantzungo dio honela Kultura sailak. Etxean behar bezala lana egiteko baliabide egokiak ez dituztenak badira edota konzentrazioa bilatzeko beste giro bat bilatzen duenak. Aurreko legegintzaldian, Gobernu taldeak Manuel Lekuona bibliotekako beheko aretoa zerbitzu hau eskaintzeko egokitu zuen, argi bereziak jarritz eta mahaiak eta aulkiak instalatuz. Orain, zerbitzua irekiko da.

Lehenengo aldia denez, ordutegi eta baldintza hauetan eskainiko da zerbitzua. Aurrerantzean, beharrak hala eskatzen badu, zerbitzuan aldaketak egongo dira, herriko ikasleei ahalik eta zerbitzu egokiena eskaini ahal izateko.

Astelehenetik aurrera beraz ikasteko testuinguru egokia aurkituko dute oiartzuarrek Manuel Lekuona Bibliotekan. Zorte on!